



Ula Iruretagoiena Busturia
Arkitektoa

Lurraldea eta dieta

Lurzorua baliabide natural baliotsua dela badakigun arren, bere espolioazioaren garaia bizi dugu. Lurzorua giza bizitza garatzeko urak adinako balioa duen arren, ez du babes handirik jaso izan, lurzorua eraikigarritasunean inplikaturik diren diru iturriak direla eta. Etxebizitzaren eta higiezinaren goraldi garaian “lurzorua terrorismoa” praktikatu da, kalteak non gertatzen ziren bereizi gabe. Hiriek eta herriek inoizko lur kontsumorik handiena izan dute, beraien historian zehar sekula izan ez bezalakoa. Gainera, aurrenekoz, hirien zabalkuntza basatia ez da egon lotua biztanleriaren hazkuntzaren beharrari. Denbora errekorrean lur azalera handiak okupatu eta urbanizatu egin ditugu, eta fenomeno hau izurritea bailitzan zabaldu da lehen munduko lurraldeetan zehar. Hondea-tzaileen eta garabien paisaia globalizatu bizi izan gara.

Kontsultatutako datuen arabera, 2006. urtean Europar Batasuneko lurzorua %2,3 hormigoiz bete da, hots, 100.000 kilometro koadro inguru. Zirrara sortzen dute datuok. Gertaera honen irakurketak izaera geopolitiko duela ezin ukatu, elite ekonomikoek lurzorua errentagarritasuna eraikuntzan finkatu dutenean gertatu delako. Ekonomiaren zirkulaziorako negozio borobila da urbanizatzea –gudak diren bezalaxe–: luraren transformazioan BGP mugimendua ikaragarria da, eta behin lanak bukatutik, lur urbanizatuaren mantzentze kostuak oso handiak dira. Diruaren mobilizazio hau erlazionaturik dago pobrezia indizeekin. Hau da, zenbat eta lur urbanizatu gehiago lurralde aberatsetan, orduan eta pobreagoak direla lurralde txiroak. Horregatik, martxan jarri den People4soil kanpainaren helburuak balio anizkoi-tza du, hain zuzen, Europar Batasunean lurzorua babesteko legea bultzatu nahi du. Lege europarrak gidalerroak besterik ez diren arren, behar-beharrezko lehen pausoa da, gerora, estatuek horiek ezartzeko legeak gara di-

tzaten. Lurzorua okupazioak ekar-tzen dituen kalte andanak mahaigai-neratzea bere babeserako bidea da eta.

Lurzorua babesaren aldarrikape-nean hainbat gai desberdin gurutzatzen dira, baina hirigintza eta agroekologia dira lerro hauetan azpimarratu nahi direnak (hauen arteko loturak marrazteko nahiarekin). Izan ere, zementoak lurra estaltzen duenean, bizitza agortzen da. Luraren emankortasuna akabatzen da. Eraikuntzak eta urbanizazioak dakarten lurzoru kontsumoaren eta elikaduraren artean bataila bat pizturik da, eta gure dietak galdu du. Nekazaritzarako ego-kiak diren lurrak, ibaiertzetako meand-roak eta eguzkitzapen oneko eta lau-tasun handiko lur asko, hiriak hartu ditu betiko. Lurzoru galera honi neka-zari kopuruaren jaitsiera gehitzen ba-diogu eta landa lurrak utzi eta hirietar-ako migrazioa gaineratzen badiogu, dietaren eraldaketa estruktural bat gertatzen da: elikadura, elikagaietan

oinarritua izatetik, kontsumo produk-tu izatera pasatu da, gure dieta enpre-sen esku utziaz. Nekazaritza intentsi-boaren industria aferak lehen munduko hiritartze prozesu masiboarekin zerikusia du seguru. Honela egin diogu lurzorua zaintzari entzungor.

Dieta osasuntsu baten aldeko apustuak lurzorua babestetik eta berreskurapenetik pasatu behar badu ere, gure esku badago zereginik. Bal-koietako eta eraikinen estalkietan or-tuak landatzearen modak salbatuko ez gaituen arren, joera honetan mezu ar-gi bat irakur daiteke: gure hirietako ur-banizazio lanak “naturalagoak” egiten ikasi behar dugula. Azalera pabimenta-tuegiak eta gehiegizko eraldaketarekin egitera ohitu gara, iragazkorak diren gainazalak sortuz eta lurzorua az-pialdeko bizitza arbuia-tuz. Has gaiten berandu baino lehen, gure auzoe-tako urbanizazio lanetatik, okupatu gabeko lurzorua sentsibiltate berri baten garaiari ateak irekitzen. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA